

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Data: 2021eko abenduaren 15a.

Ordua: 20:00.

2022ko urtarrilaren 19ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzueta (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Daniel Salvador Adán jn. (zinegotzi ez-atxikia).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bilkuran izan da, idazkari gisa.

Gai-zerrenda

1. Onestea 2021eko azaroaren 10eko aurreko ohiko bilkurako akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea**
 - 3.1. Udal-espazioen garbiketaren eta mantentze-lanen eta kontserbazioaren zerbitzua kudeatzeko INDESA 2010 SLri mandataua, 2022 ekitaldia.
 - 3.2. Tabernen ordutegi orokorra modu metatuan gehitzeko 2022. urterako daten egutegia.
 - 3.3. Udal-igerilekuen eta gainerako kirol-instalazioen mantentze-lanei buruzko zerbitzuaren kontratuan finantza-berrorka 2021eko bainu-denboraldian ezohiko zerbitzuak emateagatik.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**
5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**
 - 5.1. 2021eko Nazioarteko Euskararen Eguna. Euskara, garai berrirako tresna.
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea**
 - 6.1. 2022ko abenduaren 31ko epemuga duen kreditu-kontuari buruzko banku-kontratua.
 - 6.2. 3 poligonoko 1463 partzela prekarioan errentatzeko kontratua.
 - 6.3. Hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren arau-ekimenei buruzko plan arauemailea.
 - 6.4. EH Bildu Oion taldearen mozioa, goi-mailako interes publikoko proiektuen arauketa berriari buruzkoa eta EAJ-PNV udal-taldearen zuzenketa.

Azken puntua) Galde-eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2021eko azaroaren 10eko aurreko ohiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2021eko azaroaren 10eko aurreko ohiko bilkurako akta, egin diren oharrak sartuta.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Oiongo EH Bildu), Eva Frías del Val (Oiongo EH Bildu), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki, aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenen berri: 236/2021 eta 265/2021 bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea

3.1 Udal-espazioen garbiketaren eta mantentze-lanen eta kontserbazioaren zerbitzua kudeatzeko INDESA 2010 SLri mandatua, 2022 ekitaldia.

Aurrekariak:

- 1) Udal-espazio guztien eta Oyón-Oiongo Udalak nahitaez garbitu behar dituen espazioen garbiketa eta mantentze-lan eta kontserbazioaren zerbitzua kudeatzeko mandatua ardazten duen hitzarmenaren zirriborroa. 2022 ekitaldiari dagokio.
- 2) Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua aplikatu behar da.
- 3) Informazio Batzordearen saioan egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea INDESA 2010 SLrekin hitzarmena. Horren bidez, 2022 ekitaldian udal-espazioen garbiketa eta mantentze-lan eta kontserbazioaren zerbitzua kudeatzeko mandatua ardazten da, besteak beste, honako baldintzen arabera: Mandatuaren prezioa 171.296,24 eurokoa izango da eta hileroko fakturatuko da urteko zenbateko osoaren hamabirena. Ez da BEZa jasanaraziko, ez baita horren mendeko eragiketa. Kontratuaren iraunaldia urtebetekoa (1) izango da. Mandatua luzatzeko aukera egongo da. Luzatzeko bi alderdiek, gutxienez, kontratua amaitu baino 2 (bi) hilabete lehenago berariaz erabaki beharko dute.
- 2) Onestea agindutako zereginen baldintzak, alderdi teknikoak eta maiztasunak. Udal-teknikariek ikuskatu beharko dituzte, eta mandatuari erantsiko zaizkio.
- 3) 2021eko azaroan eta abenduan garbiketa-zerbitzua kudeatzeko mandatuaren luzapena baimentzea.
- 4) 2.- Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena formaliza dezan.
- 5) Iragarkia ALHAOn argitaratzea.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Oiongo EH Bildu), Eva Frías del Val (Oiongo EH Bildu), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Inclán Gil jn. (PP): Zaindu behar da bitan gaia gai-zerrendatik kentzera eraman digun akatsik ez izateko. Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Itxurak zenbakiak bat datoz, eta pozik gaude enpresa publikoa izatea. JMVG: Zergatik dago sartuta musika-eskolako garbiketa?

Alkate jn.: Musika-eskola Entretanto Entretentek kudeatzen du hitzarmen baten bitartez eta hitzarmenean klausula hori ageri da. Nire iritziz, hitzarmena Udalarentzat onuragarria da.

3.2 Tabernen ordutegi orokorra modu metatuan gehitzeko 2022. urterako daten egutegia.

Transkribatzen den proposamenaren berri eman da.

Aurrekariak:

1. Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak (2019ko otsailaren 21eko EHAA, 37. zk.) tabernen jardueran aritzeko ordutegia eta bestelako baldintza batzuk arautzen ditu
2. 17/2019 Dekretuak xedatutakoari jarraikiz, udal-agintariek ahalmena dute ordutegiak, gehienez, bi orduz luzatzeko.

Oyón-Oiongo Udalak 2022. urterako establezimenduen ordutegi orokorra gehitzeko proposamena egin du, eta tabernei bidali zaie. Jakinarazi zaienaren babesean, aurkeztu ez badira, proposatutako egutegia ontzat hartzen dutela ulertuko da.

Dena den, 2021eko abenduaren 31rako, Urtezahar-gaua denez, ordutegia bi ordu gehitzeko eskaera egin da.

Proposamena:

- 1) Onestea urterako daten egutegia establezimenduen ordutegi orokorra modu metatuan gehitzeko:
 - Urtarrilak 21 eta 22, San Bizente jaiak
 - Otsailak 26, Inauteriak
 - Apirilak 27, San Prudentzio
 - Uztailak 30, Brusadunen Eguna
 - Abuztuaren 24tik abuztuaren 29ra, Esker Onezko jaiak
 - Abenduak 24, Gabon-gaua
 - Abenduak 31, Urtezahar-gaua
- 2) Establezimenduen ordutegi orokorra modu metatuan gehitzeko honako mugak bete beharko dira:
 - I. Aisialdiko jarduerak ezingo dira 06:00ak baino lehen hasi.
 - II. Ixteko edo amaitzeko ordutegiaren eta irekitzeko ala hasteko ordutegiaren artean, gutxienez, hiru ordu igaroko dira, amaiera egiaz bete edo ez bete izanaren kalterik gabe. Establezimenduaren titularrak Udalari formalki jakinarazten badio baimentzen diren ordutegi orokor gehitu horiek aplikatzeari uko egiten diola, nahitaez itxi beharko du ixteko ordutegi orokorrean.
 - III. Nolanahi ere, debekatuta dago ikus-entzunezkoen ekipoak eta musikakoak funtzionatzea eta emanaldiak, dantzalekuak edo antzekoak antolatzea eta, oro har, zarata gogaikarriak sor ditzakeen edozein jarduera egitea 11:00ak baino lehen. Nahiz eta ordutegia gehitu ezingo da terrazaren funtzionamenduari dagokion ordutegia gehitu. Ordutegia amaitzen denean eta, gehienez, 30 minutu geroago, herri-bidetik kendu edo bilduko dira altzariak, ordutik aurrea bide publikoan inork berriz ez jarri ahal izateko moduan.
 - IV. Ordutegia orokorrean gehituko da lokal guztietan eta ez dira baimen berezirik emango.
- 3) Baimena ematen da 2021eko abenduaren 31n, Urtezahar-gaua denez, ordutegia bi ordu gehitzea.
- 4) Ordutegi hori gehitzea Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari eta Guardiako ertzain-etxeari jakinaraziko zaie.
- 5) Behin betiko egutegia jakinarazteko iragarkia jarriko da Udaleko webgunean.

20:40an bilkura eten da, Eduardo Inclán Gil zinegotziak (PP) ondoeza nabaritu duelako. Bilkura 21:10ean berriz hasi da Eduardo Inclán Gil zinegotziak (PP) eta Aitor Beloqui Unzuurrungaz zinegotziak (PP) utzi ostean. Lehenengoa larrialdiko osasun-zerbitzuek eraman dute.

Alkate jn.: Talde Popularreko bozeramailearekin kontsultatu dut, eta bilkura jarraitzeko eragozpenik ez zuela adierazi dit. Horregatik, eta, gainera, urtea amaitu baino lehen erabakiak hartu behar direlako, bilkurari berriz eutsi zaio.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Lehentasuna dute pertsonak eta gure irizpidea da jaien egutegia ez gehitzea eta Gabonzahar-gauari buruz erabakirik ez hartzea, kutsadurak sor baitaitezke.

Aurrekariak

- 1) Ikusi da taldeetako bozeramaileen iritzia eta, ondorioz, alkate jaunak proposatu du tabernen ordutegi orokorra modu metatuan gehitzeko 2022. urterako daten egutegia gai-zerrendatik kentzea espedientea mahaiaren gainean gera dadin. Hala, eztabaida hurrengo bilkurarako atzeratuko da.
- 2) Tokiko Erakundearen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 25/1986 Errege Dekretuaren 92. artikulua aplikatu behar da.

Hau erabaki da:

- 1) Tabernen ordutegi orokorra modu metatuan gehitzeko 2022. urterako daten egutegia gai-zerrendatik kentzea espedientea mahaiaren gainean gera dadin. Hala, eztabaida hurrengo bilkurarako atzeratuko da.
Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

3.3 Udal-igerilekuen eta gainerako kirol-instalazioen mantentze-lanei buruzko zerbitzuaren kontratuan finantza-berroreka 2021eko bainu-denboraldian ezohiko zerbitzuak emateagatik.

Aurrekariak

1. Ikusi da taldeetako bozeramaileen iritzia eta, ondorioz, alkate jaunak proposatu du 2021eko bainu-denboraldian ezohiko zerbitzuak emateagatik udal-igerilekuen eta gainerako kirol-instalazioen mantentze-lanei buruzko zerbitzuaren kontratuan finantza-berrorekaren gaia gai-zerrendatik kentzea, finantza-berroreka behar dela egiaztatzen duen dokumentua erants dadin.
2. Tokiko Erakundearen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 25/1986 Errege Dekretuaren 92. artikulua aplikatu behar da.

Hau erabaki da:

1. 2021eko bainu-denboraldian ezohiko zerbitzuak emateagatik udal-igerilekuen eta gainerako kirol-instalazioen mantentze-lanei buruzko zerbitzuaren kontratuan finantza-berrorekaren gaia gai-zerrendatik kentzea, finantza-oreka behar dela egiaztatzen duen dokumentua erants dadin.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías

del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

3. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**
4. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**

5.1. 2021eko Nazioarteko Euskararen Eguna. Euskara, garai berrirako tresna.

Eslava Galán zinegotzi andreak adierazpena gaztelaniaz eta euskaraz irakurri du. Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

5. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea

6.1. 2022ko abenduaren 31ko epemuga duen kreditu-kontuari buruzko banku-kontratua.

Aurrekariak

1. Finantza-erakundearekin urteko kreditu-kontuaren kontratua sinatzeko espediente hasi da. Diruzaintzako eragiketa hitzartua da, kobrantzen eta ordainketen arteko behin-behineko desfaseei erantzuteko. Gehieneko zenbatekoa: 500.000 (bostehun mila) euro. Hasteko Oyón-Oionen bulegoa irekita duten banku-erakundeei gonbidatu behar zaie. Eskaintzan erabilitako kapitalaren gaineko interes-tasa eta banku-komisioak adieraziko dira. Eragiketa 2022ko abenduaren 31n kitatuta geratuko da.
2. Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeek Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 561 artikulua xedatutakoa aplikatu behar da. Horren arabera, tokiko erakundeek edozein finantza-erakunderekin diruzaintzako eragiketak hitzar ditzakete urtebetetik beherako epean behin-behineko likidezia-defizitak estaltzeko, horiek ordainketen eta diru-sarreraren epemugen diferentziei erantzuten badizkiete, Tokiko Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauaren 51. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.
3. Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 51. artikulua xedatutakoa aplikatu behar da. Horren bidez, arau honek zehaztutako baldintzetan eta erakunde eskudunek ezartzen dituzten xedapenen esparruan, Arabako lurralde historikoko udalerriek eta haien erakunde autonomoek, Udalbatzaren osoko bilkurak erabaki ondoren, honako hauek hitzartu ahal izango dituzte: b) Diruzaintzako eragiketak edozein finantza-erakunderekin urtebetetik beherako epean diruzaintzaren behin-behineko beharrei erantzuteko.
4. Emandako epean honako eskaintza hauek egin dira:
 - a. Laboral Kutxa, irekiera-komisioa: % 0; interes-tasa: % 0ko urteko finkoa; erabili gabeko saldoaren komisioa: % 0,08 urtean (interesak hiru hilez behin sortuko dira).
 - b. Kutxabank, irekiera-komisioa: % 0; interes-tasa: % 0ko urteko finkoa; erabili gabeko saldoaren komisioa: % 0,075 urtean (interesak hiru hilez behin sortuko dira).
5. Alkatetzaren proposamena.

Hau erabaki da:

1. Urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua Kutxabanki adjudikatzea; irekiera-komisioa: % 0; interes-tasa: % 0ko urteko finkoa; erabili gabeko saldoaren komisioa: % 0,075 urtean (interesak hiru hilez behin sortuko dira).
2. Eduardo Terroba Cabezón Alkatetzaren titularrari ahalmena ematea, beharrezkoak diren agiriak sina ditzan.
3. Erabaki hau Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurralde Oregaren Sailari jakinaraztea.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

6.2 3 poligonoko 1463 partzela prekarioan errentatzeko kontratua.

Aurrekariak:

1. Oyón-Oiongo Udalak ondoren deskribatzen den higiezinaren prekarioan okupatzeko interesa du: Triangelu irregular formako partzela; katastroko erreferentzia: 3 poligonoa, 1463 partzela. Mugak: iparraldean, 1462 partzela; hegoaldean (triangeluaren ertza), Felipe IV kalea; ekialdean, bidea; mendebaldean, Río Grande. Agrícola Riojana SA da % 100ean jabea jabari osoan. Partzelaren katastro-balioa 79.343,15 eurokoa da.
2. I. zenbakiko aurrekarian deskribatzen den higiezinaren prekarioan okupatzeak udal-eskumeneko behar publiko bat asetzen du, hain zuzen ere, aisialdiko baratzeen erabilera ematea. Ekimen hori partaidetza-mahaiak iradoki du. Herritar guztientzat eta elkarrekin edo beste gizarte-edo hezkuntza-erakunde batzuentzat gizarte eta aisialdiko baratzeak abian jarri nahi dira. Partzelak eta, oro har, espazioa hasieran diseinatzeko lagunduko da. Araudi bat egingo da etorkizuneko erabiltzaileak nola hautatu eta baratzeak nola erabiliko diren arautzeko. Ekimenaren helburua da bizikidetzaren eta laboreen ingurumen-jardunbide onak sustatzea.
3. Jabetzak interesa du eraikitze-erabiltzailearen erabiltzea erabakitzen duen bitartean orubea mantentzeak dakarren karga saihesteko.
4. Prekarioak honako baldintza hauek bete behar dituzte:
 - I. Jabeak Oyón-Oiongo Udalari prekarioan emango dio I. zenbakiko aurrekarian deskribatutako higiezinaren okupazioa. Okupazioa preziorik eta mesederik ordaindu gabe egingo da. Jabearen emakidea bat da, orubea mantentzearen betebeharrak saihestearen truke.
 - II. Okupazioaren epea mugagabea izango da, dokumentu hau sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.
 - III. Oyón-Oiongo Udalak partzela aisialdiko baratzeetarako erabiliko du, eta erabilerara egokitze behar diren lanak gauzatu behar ditu. Merkataritza-konpainiak berariaz baimentzen ditu zereginak jabetzaren onurarako direlakoan. Prekaristak ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango, seigarren klausulan xedatutakoa gorabehera.
 - IV. Okupazioaren epean, Oyón-Oiongo Udalak prekarioan lagatako partzelan mantentze- eta konponketa-lanak egingo ditu, familia-aita onaren eginbidez ohiko erabilera-egoeran kontserbatzeko.
 - V. Era berean, Oyón-Oiongo Udalaren kontura izango dira finantza buruzko zerbitzuak kontsumitzeagatik gastu guztiak, hala nola ura, argia, telefonoa eta ondasun higiezinaren gaineko zerga (ekitaldi honetan 174,55 euro), baina inola ere errenta ordaindu gabe.
 - VI. Jabetzak edozein unetan amaitu ahal izango du prekarioa, baldintza bakarrarekin: prekaristak finka entregatzeko hamabost egun lehenago ohartaraziko dio. Dena den, prekarioa amaitzeko modu horrekin prekaristak ez du eskubiderik edo kalte-ordainik izango.
 - VII. Udalak aisialdiko baratzeak arautzeko araudian sartuko du gizarte-baratzeak erabiltzeko adjudikaziodunak kaleratu ahal izango direla Udalak hamabost egun lehenago ohartaraziz gero. Hori gertatuko da finka jabeari itzuli behar bazaio.
 - VIII. Adjudikaziodunak baratzeak entregatu nahi ez badituzte, prekaristak erantzuneko die atzerapenak sortzen dituen kalte-galerei eta onesten du jabetzak dagozkion ekintzetan jardutea eta, bereziki, Hipoteka Legearen 41. artikulua xedatutako prozedurara jotzea.

- IX. Oyón-Oiongo Udalak prekarioan lagatzen den partzelan aisialdiko baratzeen jarduera onetsi eta garatzen duen unetik onartzen du baratze-erabileraren ondoriozko erantzukizuna prekarioan lagatako partzelari dagokionez.
- X. Alderdiek ez diote bermea eskatuko elkarri kontratu honetako eskakizunak betetzeko.
- XI. Akordio honek administrazio-izaera du, eta alderdien artean sor daitekeen edozein eztabaida administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoa izango da, SPKLTBren 21.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (hitzez hitz SPKLren 21.11 artikulua xedatutako bera dio).
- XII. Kontratu honek administrazio-izaera du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 25.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera eta alderdien artean sor daitekeen edozein eztabaida administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoa izango da.
- 5. Goi-mailako arkitektoak sinatutako txosten teknikoa dago, jarduketa eta partzelaren erabilera plangintzarekin bateragarriak direla adierazteko.
- 6. Alkatetzaren proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Prekarioan kontratua sinatzeko baimena ematea, adierazitako baldintzen arabera.
- 2) Partzelaren eta aisialdiko baratze-erabileraren egokitze-lanak gauzatzeko baimena ematea.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

6.3. Hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren arau-ekimenei buruzko plan arauemailea.

Aurrekariak:

- 1) Oyón-Oiongo Osoko Bilkurak 2018 ekitaldirako 2017ko abenduaren 20ko bilkuran, 2019 ekitaldirako 2018ko azaroaren 14ko bilkuran eta 2021erako 2020ko abenduaren 9ko bilkuran ezarri nahi ziren udal-ordenantzen plan arauemaile bana onetsi zituen.
- 2) Urteko plan arauemailea onesten denean aurreikuspena egiten da bermatzeko, batetik, segurtasun juridikoaren eta gardentasunaren printzipioak eta, bestetik, xedapenak egitean partaidetza-eskubidea. Modu horretan herritarrek eta enpresek badakite zeri heldu behar dioten.
- 3) Oyón-Oiongo Udalaren plan arauemailean ezarri nahi diren udal-ordenantzak sartzen dira lehentasunen arabera hurrenkeran:
 - I. Trafiko eta ibiekiko lehentasun alderantzizkatua duten eremuetan bideak arautzeko ordenantza.
 - II. Aisialdiko baratzeak arautzeko ordenantza.
 - III. Kutsadura akustikoa, zarata eta bibrazioak arautzeko ordenantza.
- 4) Arau-ekimenak honako arrazoi hauetan oinarritzen dira:
 - I. I. ekimena ibiak, oinezkoen gunak, etab. erregulatzeko beharrezan sartzen da.
 - II. II. ekimena partaidetza-mahaiaren iradokizun baten emaitza da eta etorkizuneko erabiltzaileak nola hautatu eta baratzeak nola erabiliko diren arautuko du.
 - III. II. ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua aplikatzea lortu nahi du.
- 5) Erabakiaren proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2021 ekitaldirako ezarri nahi diren udal-ordenantzen plan arauemailea lehentasunen arabera hurrenkeran:

- I. Trafiko eta ibiekiko lehentasun alderantzikatua duten eremuetan bideak arautzeko ordenantza.
 - II. Aisialdiko baratzeak arautzeko ordenantza.
 - III. Kutsadura akustikoa, zarata eta bibrazioak arautzeko ordenantza.
- 2) Urteko plan arauemailean sartzeari ordenantzen indarraldirako funtsezko baliozkotasun-baldintza da.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Zerga-araudia badugu, baina ez ibiak arautzen dituen.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Pozik gaude aisialdiko araudiarekin. Guk proposatu genuen baratzeak sortzea. Ados gaude.

6.4. EH Bildu Oion taldearen mozioa, goi-mailako interes publikoko proiektuen arauketa berriari buruzkoa eta EAJ-PNV udal-taldearen zuzenketa.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Nire asmoa mozioa kentzea zen, gaur egun legea aldatuta baitago, baina mantenduko dut.

Gamarra López-Brea jn. (PSE-EE PSOE): Gu abstenitu egingo gara, bai mozioan, bai eta zuzenketa ere.

EH Bildu Oion taldearen mozioa, goi-mailako interes publikoko proiektuen arauketa berriari buruzkoa transkribatu da:

2021eko azaroaren 5ean Eusko Legebiltzarreko Jasangarritasun, Ingurumen eta Naturagune Batzordea Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko Legearen proiektuari legebiltzarreko taldeek aurkeztutako zuzenketa antolamenduaren ponentzia eztabaidatzen ari zen, eta EAJ eta PSE legebiltzarreko taldeek 61. zuzenketa proposatu zuten (dokumentu osoaren 227.a) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko urriaren 31ko 4/1990 Legea aldatzeko.

Ingurumen Administrazioari buruzko Legearen proiektua Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari da, eta zuzenketak aurkeztu ostean, legebiltzarren prozeduraren fase aurreratuan dago epe laburrean oneste aldera.

Eusko Jaurlaritzaren lege-proiektuari egindako zuzenketa baten helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko 4/1990 Legea aldatzea eta irudi berri bat arautzea, hain zuzen, goi-mailako interes publikoko proiektuak (GIPP).

Aldaketa horrekin Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen zaio ustez ingurumena hobe dezakeen edozein azpiegitura goi-mailako interes publikoko proiektua aitortzeko, baldin eta sustapena publikoa bada. Hor daude energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zaborteak, araztegiak, erazpen-proiektuak, etab. Gainera, bestelako proiektu-motek ez zaizkie ateak ixten, besteak beste, ekipamendu handiei edo beste mota batzuei, ingurumenaren ikuspegitik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatuetan planteatutako edozein proiektu, hala nola golde-zelaia...)

Neurri horrek arriskuan jarriko luke indarreko lurralde-antolamenduaren berme-sistema, eta udal-autonomiaren printzipioari larriki eragingo lioke.

Proposatuta dagoen moduan, goi-mailako interes publikoko proiektuen (GIPP) aitorpenaren arabera, edozein proiektu ustez ingurumen-hobekuntza ekarriko balu, erabateko hierarkia izango luke eta egungo lurralde antolamenduko tresnak (hala nola HAPO, LPP, LPS edo LAGak) saihestuko lituzke, ingurumen-hobekuntza hori halakoa ez izan eta erabaki politiko hutsean funtsatu arren. Modu horretan,

antolamenduko tresnak GIPPari egokitu beharko litzaizkioke eta behar izanez gero, barne aldaketak gauzatu beharko lirateke.

Horrenbestez, “GIPP” irudiak lurralde- eta hirigintza-plangintzaren inguruan ezarrita dagoen adostasunari erasotzen dio. Nabarmen urratzen da autonomia eta demokrazia toki eremuan, udalak bere lurraldearen barruan ezin baititzake desegokitzen jotzen dituen erabilerak muga.

Udal-autonomiaren printzipioa eta lurralde-antolamenduko tresnekin eta ingurumenaren babesarekin konexioa zaintzeko, bidezkoa da honako proposamen hau egitea. Kezka handiz ikusten dugu Ingurumen Administrazioaren Legea laster baldintza horietan onestea.

Horregatik, EH Bildu Oion udal-taldeak honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onar dezan:

1. Oyón-Oiongo Udalaren Osoko Bilkura Lurralde Antolamenduko Legeak goi-mailako interes publikoko proiektuen irudia edo gure Udalaren toki autonomia urratzen eta gure toki demokrazia puskatzen duen beste edozein irudi aurrez ikustearen aurka dago.
2. Eusko Legebiltzarrari eskatzea udal-autonomiaren printzipioa eta lurralde-antolamenduko eskumenak garatu eta erabiltzeko gaitasuna errespetatu ditzen eta, horretarako, egungo araudiaren esparruan eskumenak zehazten diren moduan kontuan hartzea.
3. Oyón-Oiongo Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen dio EUEDEL Euskadiko Udal Elkarteari, udalerrien udal-interesa defendatze aldera, kontra dagoela iragartzeko eta aurreko puntuan deskribatutakoaren ildotik Lurralde Antolamenduaren Legea ez aldatze aldera gestio egokiak egiteko.
4. Eusko Legebiltzarrari eskatzea goi-mailako interes publikoko proiekturik ez zehazteko, baldin eta lurraldea antolatze eta ingurumena babesteko egungo sistemaren bermeak urratzen badituzte.
5. Oyón-Oiongo Udaleko Osoko Bilkurak erabakitzen du mozioaren edukia Eusko Legebiltzarrari eta EUEDEL Euskadiko Udal Elkarteari bidaltzea.

Goi-mailako interes publikoko proiektuen arauketa berriari buruz EAJ-PNV taldeak EH Bildu Oion taldearen mozioari eginiko zuzenketa bozkatu da. Zuzenketa onartuz gero, mozioa ezetsi eta ez litzateke bozkatuko.

Aldeko 4 (lau) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Aurkako 2 (bi) boto: José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion) eta Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion).

2 (bi) abstentzio: Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Zuzenketa onetsi da, beraz, mozioa ezetsi ere bai.

Azken puntua) Galde-eskeak

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Arabako Mendiaskeren manifestua irakurri du. Labrazak ez du errotarik nahi. Berriztagarriak bai, baina ez modu horretan.

Labrazak ezetz esan dio haize-zentralari.

Labrazak esan dio engainuari.

Labrazak esan dio informazio gabeziari.

Labrazak esan dio bere mendien industrializazioari.

Labrazak esan dio bere eskumenetan sartzeari

Labrazak esan dio herri bezala lasaitasuna hausteari.

Labrazak esan dio Erdi Aroko berezitasuna suntsitzeari.

Ozenki eta argi entzutea nahi dugu: Ez da ez.

Labrazak ez du errotarik nahi.

Honek ez du alderdi politikoeekin zerikusirik. Labraza gara, Oion gara, Arabako Errioxa gara, Araba gara, eta guztioi eragiten digu. Beraz, udal honetako ordezkariak eskatzen diegu gure ikuspuntua ulertu, babestu eta defendatzeko. Berriztagarriak bai, baina ez modu horretan.

Hori

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Arabako Mendiaskeren manifestua irakurri du. Labrazak ez du errotarik nahi. Berriztagarriak bai, baina ez modu horretan.

Labrazak ezetz esan dio haize-zentralari.

Labrazak ezetz esan dio engainuari.

Labrazak ezetz esan dio informazio gabeziari.

Labrazak ezetz esan dio bere mendien industrializazioari.

Labrazak ezetz esan dio bere eskumenetan sartzeari

Labrazak ezetz esan dio herri bezala lasaitasuna hausteari.

Labrazak ezetz esan dio Erdi Aroko berezitasuna suntsitzeari.

Ozenki eta argi entzutea nahi dugu: Ez da ez.

Labrazak ez du errotarik nahi.

Honek ez du alderdi politikoeekin zerikusirik. Labraza gara, Oion gara, Arabako Errioxa gara, Araba gara, eta guztioi eragiten digu. Beraz, udal honetako ordezkariak eskatzen diegu gure ikuspuntua ulertu, babestu eta defendatzeko. Berriztagarriak bai, baina ez modu horretan.

Hori

Alkate jn.: Jakinarazi dut haiek manifestua irakurtzen bazuten ez zela aktan idatzita azalduko. Halaber, aipatzen dut ez dudala nire iritzia azalduko, nahiz eta haiek ulertu haize-parkearen alde nagoela, besterik gabe, ez dut nire iritzia azalduko.

Gamarra López-Brea jn. (PSE-EE PSOE): Ilusioa dut jai zoriontsuak igaro ditzazuen.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:14an (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2021eko abenduaren 27an.

Udaleko idazkaria:

O.E. Alkatetza